

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

27/2021 Mozioa, martxoaren 24koa, Gasteizko Goi Mendiak ES2110015 BBG zabaltzeko aukerari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

27/2021 Mozioa, martxoaren 24koa, Gasteizko Goi Mendiak ES2110015 BBG zabaltzeko aukerari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, inplikaturako udalekin eta Vitoria-Gasteizko mendien kudeaketan titulartasuna eta/edo eskubideak dituzten kontzejuekin elkarlanean, azter dezatela Vitoria-Gasteizko Goi Mendiak ES2110015 BBG zabaltzeko aukera, jakitun diren arren natura-balio nagusien babesaren egun indarrean den kontserbazio- eta babes-figurarekin bermatuta dagoela.

2. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, behin Arabako Foru Aldundiarekin, udalekin eta kontzejuekin Vitoria-Gasteizko Goi Mendiak ES2110015 BBG zabaltzeko aukeraren inguruan adostasun bat lortuta, itxi dadila Vitoria-Gasteizko Mendiko NBAP lantzeko eta onesteko egungo espedientea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 24a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA